

GERNIKA GEHIAGORIK EZ!

ehbildu

EH Bilduk kezka handia agertu nahi du Palestinako egoeratik. Gazako eremuan indarkeria-egoera onartezina dela ikusten ari gara, Israelek bonbardatutako azken hospitalaren kasuan adibidez, eta, beraz, inoiz baino gehiago, deseskalatzearen, elkarrizketaren eta negoziazioaren aldeko gurte jarreran berresten gara. Negoziazioak eta akordioak ez dute alternatiba bideragarririk.

Ia 20 urteko blokeoaren ondoren, Gazan bizi diren pertsonak zigor kolektibo baten biktima izaten ari dira; bonbardatzen ari dira, eta ura, argindarra edo erregaia bezalako oinarrizko horniduretarako sarbidea eten zaie. Horri dagokionez, bat gatoz Nazio Batuen iritziarekin: hori ez da onargarria. Nazioarteko zuzenbidearen urraketa onartezina da, nazioarteko komunitateak onartu behar ez duena.

Ildo horretan, Gazako eremua helburutzat duen edozein operazio militar gelditzea eskatzen dugu, bai horrek eragiten dituen ondorio humanitarioengatik, bai politikengatik, elkarrizketa bidezko edozein konponbide alferrik atzeratzen duelako eta ia ezinezkoa egiten duelako.

EH Bilduk gogor arbuiatzen ditu Israelgo edo Palestinako herritarren aurka aldez aurretik pentsatutako erasoak. Era berean, zibilak bahitu gisa hartzea salatzen dugu, eta, beraz, lehenbailehen askatzea eskatzen dugu. Bereziki kezkatuta gaude oraindik desagertuta dagoen euskal herritarraren egoerarekin. Elkartasuna adierazi nahi diegu haren senide eta lagunei.

Errealitate horren aurrean, nazioartea ezin da ezer egin gabe geratu. 75 urteko gatazka da, Nazio Batuen ebazpenak ez betetzeak markatutako gatazka. Statu quo-a mantentzea ez da aukera bat, eta nazioarteko komunitateak alde ezberdinak animatu behar ditu elkarrizketa eta negoziazio prozesu bat ezar dezaten, bake justu eta iraunkor bati ateak irekitzeko.

Bake horrek, gure ustez, nahitaez ekarri behar du Palestinaren okupazioa amaitzea eta haren eskubide nazionalak aitortzea, estatu independente eta bideragarria eratzeko eskubidea barne.

Horregatik guztiagatik, EH Bilduk bat egin du euskal gizarte zibilak deitutako mobilizazioekin, azken 75 urteetan Palestinar herriari askatasun ea bakean bizitzeko aukera galarazidion gatazka konpontzeko.

Gernika-Lumon 2023ko urriaren 18an